

2023 MEMORIA



AURKIBIDEA

1	NOR GARA	3
2	GAUDE ZENBAKITAN	4
3	BABES—EREMUAK	5
	Laguntza-magnitudeak	5
	Babesa Familiei	6
	Psikologia	6
	Eguneko Arreta	7
	Okupazionala	8
	Etxebizitzak	9
	CIVIS	10
	Aisialdia	11
	Boluntariorza	12
4	PROIEKTUAK	13
	Biziki	13
	Nik ere egiten dut posible aldaketa	14
	Bizi-proiektuak: bizitza independentea	15
5	BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA	16
6	2023AN	17
7	GURE INPAKTUA	18
8	ALIA NTZAK	19

1 NOR GARA DUINTASUNA ERAIKITZEN

● Zeregina


“Konpromiso etiko batetik, laguntza eta aukerak emanda, adimen urritasuna duen pertsona bakoitzak eta haren familiak bizi-kalitateko euren proiektua garatzeko aukera izan dezaten laguntzea, bidezkoagoa eta solidarioagoa den gizarte batean eskubide osoz herritar gisa gizarteratzea sustatuta”.



● Ikuspegia

Pertsona bakoitzak eta bere familiak zentzuzko bizi-tza lortze aldera, gizartean oso-osorik murgilduta, lortze aldera aukerak sortzen dituen eta gizarte etikoari balioa ematen dion erakunde bat gara.

● Gobernu-organoak



2

GAUDE ZENBAKITAN

2023
MEMORIA

● Pertsonen zifra nagusiak



301

Pertsona eta haien familiak



139

Profesionale



68

Boluntario



434



Bazkide



+140

Laguntzaile

● 2023ko datu ekonomikoak



3 BABES-EREMUAK

● Laguntza-magnitudeak

 EMAKUMEAK  GIZONAK

Eguneroko Arreta

Andra Mari EZ*	7	7	14
Barrika EZ	9	11	20
Monte Ikea EZ	3	9	12

Okupazionala

Donibane ZO**	40	24	64
Mendiondo ZO	18		18

Etxebizitzak

Belauste etxebizitza	10		10
Gobelas etxebizitza	8		8
Santa Ana etxebizitza	8		8




CIVIS

Lan - Prestakuntza	12	24	36
Lan - Orientazioa	24	18	42
Enplegua babesarekin	9	8	17

Aisia

	68	101	169
--	----	-----	-----

*Eguneko Zentroa. **Zentro okupazionala.



● Familiak babestea

Zer egiten dugu?

Familia guztiei ematen diegu laguntza, babesarekin eta aukerekin, eta familiaren bizitzalitatea eta kide bakoitzaren ongizatea hobetzen saiatzen gara. Familia gisa dituen indarguneak garatzen laguntzen dugu, eta horrela, gaitasun eta bizitzaren gaineko kontrol-sentimendua handitzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?



● Psikologia

Zer egiten dugu?

Pertsoneri eta senideei laguntzen diegu bizitzako etapa eta egoera desberdinetan. Gaude barneko eta kanpoko laguntza-sarea osatzen duten profesionalekin ari da elkarlanean eta haiekin koordinatzen da. Oinarrizko eskubideen errespetua eta eredu etikoan oinarritutako bizimodu duina sustatzen ditu.

Zer nabarmentzen dugu?



● Eguneko arreta

Zer egiten dugu?

Komunitatean erabat parte hartzeko eta modu globalean garatzeko aukerak sorrarazten lagundu eta babesten dugu. Bereziki nabarmentzen ditugu parte hartzearen, gizarteratzearen eta eskubideen esparruak. Pertsonak haien bizitzak kontrolatzen dituztela sentitzea sustatzen duten gaitasunak garatzea bultzatzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?

GARAPEN PERTSONALA ETA BIZI-KALITATEA

- Haien interes eta lehentasunekin bat zetozen jarduerak sustatzen ditugu.
- Sukaldaritza-tailerrak
- Artisautza-lanak
- Komunikazio-taldeak

20 pertsona beren eskubideen inguruan lanean

OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEN

- Osasunari eta ongizateari buruzko tailerrak
- Nutrizioari buruzko prestakuntza-pilulak

ESPERIENTZIAK PARTEKATZEN

Belaunaldiartekotasuna:

- Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunean beren esperientziak partekatu zituzten adineko emakumeekin hitzaldia.
- Sentsibilizazioa: HH4 eta HH5eko ikasleekin.

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEN

Gure inguruko elkarte, udal edo hainbat erakundek antolatutako jardueretan parte hartzen dugu.

(EITB Maratoia, Gorkizko balkoi eta fatxadaren gabonetako dekorazio-lehiaketa...)

GORLIZ

BARRIKA

IKEA
MENDI



“Adiskideekin egiten dugun jarduera guztiez gozaten dut, batez ere furgonetarekin atera eta toki berriak ezagutzen ditugunean”

Luis Velle

“Lagundua, babestua eta errespetatua sentitzen naiz. Badakite zeintzuk diren nire beharrianak, eta haiekin laguntzen didate”

Uxue Argaluz



● Okupazionala

Zer egiten dugu?

Pertsonei laguntza integrala ematen diegu, lanerako gaikuntzarako eta egokitze pertsonal eta sozialerako programak garatuz, garapen pertsonalaren maila handiagoak lortzeko helburuarekin. Horrela, pertsonak bere bizi-kalitatea hobetu ahal izango du, pertsonek ahalik eta bizitza autonomoa egin ahal izateko beharrezkoak diren laguntzak eskainiz.

Zer nabarmentzen dugu?

Pertsona bakoitzaren gaitasunen eta lehenetasunen arabera ikaskuntza funtzionalak sustatzen ditugu, eta laguntzak garapena, hezkuntza, interesa eta ongizatea sustatzea xede duten baliabide eta estrategia gisa ulertzen ditugu. Horrela, norberaren eta gizartearen funtzionaltasuna hobetzen dugu.

Horretarako, honako tailer hauek jarri ditugu martxan:

- | | | | | |
|-----------------------|---------------------------------|----------------------------|---------------------------|--------------------------------|
| INGURUMENA | BEROTEGIA | IRTEERAK | JAIAK | YOGA |
| ERLAXAZIOA | ANIMALIEKIN LAGUNDUTAKO TERAPIA | LEIOAKO UDALEKO HERRIGUNEA | LANKIDETZAK IKASTETXEEKIN | |
| SUKALDARITZA-TAILERRA | LIBURU BIDAIARIA | BRIKOLAJEA | BERDINTASUNA | GIZARTE- ETA KULTURA-INGURUNEA |

Gure jarduera hainbat enpresarekin elkarlanean garatzen dugu, batik bat elektronikaren sektorearekin lotutakoekin.

EGOKI PLANA

Proiektu hau okupazio-zerbitzuan zahartzen ari diren eta/edo okerrera egiten ari diren pertsonei zuzendutako laguntza-eredu biziagoa da.



DONIBANE | MENDIONDO



“Tailerra nire lantokia da. Oso ondo pasatzen dut eta hemen egiten diren jarduera guztiak gustatzen zaizkit”

Ainhize Ruiz

“Bi urte daramatzat Mendiondon eta oso pozik nago. Barazki asko landatzen eta uztatzen ditugu berotegian. Baratzean biltzen dugunarekin, sukaldaritza-tailerra egiten dugu edo etxera eramaten dugu. Hainbat jarduera egiten ditugu, hala nola museoetara joan edo Getxoko ingurumen-gelara. Primeran pasatzen dugu, barre asko egiten dugu. Gehien baloratzen dudana zoragarria den talde osoarekin egotea da”

Anas Farsane



● Etxebizitzak

Zer egiten dugu?

Pertsonen laguntza eta babesa ematen diegu beren bizi-proiektua garatu dezaten, beren nahiak eta interesak bete ditzaten, trebetasun funtzionalak ikasi ditzaten, hazkunde pertsonala jorratu dezaten eta komunitateko etxe batean bizi daitezen. Hiru komunitate-etxebizitza eskaintzen ditugu Getxon eta Leioan, eta bertan 26 pertsona bizi dira.

Zer nabarmentzen dugu?

BIZITZA PERTSONALAREN ETA ETXEKO BIZITZAREN ALDERDIETAN PARTE HARTZEA

Pertsonen haien bizitzarako garrantzitsuak diren eta beraien aukeratu dituzten alderdietan parte har dezatela sustatzen dugu: bidaiak planifikatzea, dirua kudeatzea, medikazioa kudeatzea, etxeko lanak ikastea (sukalderitza, plantxa, eta abar).

KIDE BERRIAK

Bost pertsona berriri eman diegu ongi etorria. Beren bizitza-plana bizitzeko eta garatzeko etorri dira.

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

Prestakuntza-jardunaldiak, kontuan hartuta profesionalen interes pertsonalak eta erakundearen lan-ildoak.

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA

Bizi garen udalerriek eskaintzen dizkiguten baliabideetan parte hartzen dugu: polikiroldegiak, jaiak, kultur-gelak, arte-tailerak, eta abar.

BEALUSTE

GOBELAS

SANTA ANA

“Nire izena Galder da eta Romoko etxean nago. Oso gustura nago adiskideekin. Nahiko barregarria eta nahiko soziala izaten naiz jendearekin. Itzel gozaten dut musika egiten”

Galder Álvarez



“Oso gustura nago Santa Ana etxean adiskideekin eta janariarekin, oso gozoa baita”


Aida Manzanedo

● CIVIS. Laneko Prestakuntza eta Enplegua Babesarekin

Zer egiten dugu?

CIVISEk enplegarritasuna hobetzearekin zuzenean lotutako kompetentzia gehiago garatzen eta sustatzen laguntzen du, laneratzeko aukerak areagotzeko.

Zer nabarmentzen dugu?



“Matrikulatu egin naiz lan bat lortu, independentea izan, neure dirua irabazi eta gehiago ikasi nahi dudalako”

Inazio de la Torre

Enpresa laguntzaileak

ENPLEGU LAGUNDUAN



PRAKTIKETAN

dauden ikasleentzako enpresa laguntzaileak



“Nire lehen lana oso esperientzia ona eta polita izan da, errepikatzeko modukoa”

Paula Galán

● Aisia

Zer egiten dugu?

Aisialdian pertsoneri beharrezko baliabideak eta laguntzak eskaintzen saiatzen gara, aisialdi indibidual eta partekaturako eskubideak gauzatzeko gainerako baldintza berberetan, normalizazioaren, gizarteratzearen eta pertsonari orientatzearen printzipioek gidatuta.

Zer nabarmentzen dugu?

**ADIMEN-DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONEN
AISIALDI-BATZORDEA**
10 pertsona

JOLAS-PROGRAMAKO PARTE-HARTZAILEAK

- Karta-sortaren txokoa: 6
- Asteburuetako kluba: 106
- Aste Santuko klubak: 27
- Uztaileko oporretako jarduerak: 57
- Abuztuko oporretako jarduerak: 39

PROGRAMA SOZIOKULTURALEAN PARTE HARTU DUTENAK

- Pintura-tailerra: 26
- Dantza: 18
- Abesbatza: 11
- Gorputzeko adierazpena: 12
- Musidisk: 9
- Irakurketa Errazeko Kluba: 19

OPORRETAKO PROGRAMAN PARTE HARTU DUTENAK

- Aste Santua: 65
- Abuztua: 79

NEURRIRA EGINDAKO AISIALDIKO PROGRAMA

Pertsoneri laguntza ematen jarraitzen dugu euren aisia kudeatu dezaten, eta, horrela, urtebetetze-ospakizunak, asteburuko irteerak, atzerrirako bidaiak, kontzertuak eta abar antolatu ditzaten ahalbidetzen dugu.

Urtean zehar,
74 parte-hartze egon dira guztira.

KIROL-PROGRAMAN PARTE HARTU DUTENAK

- Areto-futbola: 32
- Golf: 6
- Igeriketa: 48
- Mendi-ibilaldiak: 10
- Mendia: 6
- Gimnasia: 10
- Yoga: 9
- Tenisa: 5

KIROL-TOPAKETETAN ETA -TXAPELKETETAN PARTE HARTU DUTENAK

- | | |
|-----------------------------------------------|-------------------------------------|
| • Bilbao Mendi Trail: 5 | • Legazpi: 30 |
| • Euskadiko Igeriketa Egokituko Txapelketa: 8 | • Igeriketa Azpeitia: 10 |
| • Golf Txapelketa: 5 | • Igeriketa Bizkaia Uda: 19 |
| • Futbol Antirrazista: 7 | • Igeriketa Galdakao: 13 |
| • Futbol Euskal Kopa: 10 | • Bizkiletak Lezama: 8 |
| • Futbol E! Batera: 12 | • Bizkaiko Igeriketa Txapelketa: 17 |
| • Futbol Leioa: 13 | • Euskal Pilota promoa: 6 |
| | • Belaontzia Special Olympics: 3 |

“Urte asko daramatzat futbolean, eta, niretzat, garrantzitsua da oso ondo jokatzea nire futbol-kideekin oso ondo pasatzeko eta garaipenen bat lortzeko”

Igor Porset



“Gero eta gogokoago dut Musidisk-era joatea eta jardueran gauden pertsonen konpainiaz gozatzea. Itzel lasaitzen nau eta Djembea jotzea gustatzen zait; Afrikako musika-tresna bat da”


Idoia Izquierdo

● Boluntariotza

Zer egiten dugu?

GAUDEn, boluntariotzan sinesten dugu aldaketarako eragile gisa.

Boluntarioak funtsezko zutabeak dira. Jarduera asko ez lirateke posible izango haiek gabe. Aurten **68 parte-hartzailek** lagundu dute, honako hauetan:



GAUDEko boluntarioek honako hauetan hartu dute parte:

ASIALDI—KLUBA

KIROLA

OPORRAK

BIZIKI

ANTZERKIA
DANTZA
FUTBOLA
MENDIA
MENDI—IBILALDIAK

ASIALDIA
NEURRIRA
KONTZERTUAK
IGERIKETA
YOGA



EGUNEKO IRTEERAK
KARTA—SORTAREN
TXOKOA
ZINEMA
HONDARTZEN
GARBIKETA

BIDAIAK
INFORMATIKA
IRAKURKETA—KLUBA
ELIKAGAIEN BILKETA

Ren Zuzendaritza
Batzordeko kide gara



BForoaren parte gara,
Bizkaia Gara-koa (Bolunta)



“Duela urte batzuk GAUDEn boluntario izaten hasi nintzenetik, pertsona zoragarriekin partekatu ditut honakoak: zaletasunak, jarduerak, gustuak, momentuak... Guztioi eman nahi dizkizuet eskerrak. GAUDE nire bizitzaren parte da”

Egoitz Méndez



“Oso eskertuta nago GAUDEri, boluntario askori opor paregabe eta bereziaz gozatzeko aukera emateagatik, bertan pertsona zoragarriekin sortu baititugu oroitzapen ahaztezinak”

Ziortza Morales

4 PROIEKTUAK


● Biziki



Zer egiten dugu?

Bizikin adimen-desgaitasuna duten 50 urtetik gorako pertsoneri eta haien familiei ematen diegu laguntza, bizi oso batez goza dezaten zahartze aktibo eta osasuntsu batean.

Zer nabarmentzen dugu?



Komunitate-jarduerak

2023KO TAILERRAK/JARDUERAK

KOKAPENA

Informatika	LEIOA-ERANDIO HHI
Estimulazio kognitiboa	NAGUSI RKE (GETXO)
Boluntarioritza animaliekin	ASKATA ZENTROA
Bizitza eta zahartze osasuntsua	NAGUSI PINUETA (LEIOA)
Zineadin	NAGUSI RKE (GETXO)
Argazki bat kontaidazu	NAGUSI RKE (GETXO)
Zahartze osasuntsuari buruzko hitzaldiak	NAGUSI RKE (GETXO)
Egoitzetan dauden pertsoneri bisitak egitea	MENPEKOTASUN-EGOITZAK
Kultur-irteerak	LEIOA-ERANDIO HHI



“Gogoko dut txakurrekin paseatzea eta nire adiskideekin eta katuekin zerbait edatea eta baita musika entzutea furgonetan eta orain egoitzan dauden adiskideei bisita egitea”

Maite Olano



“Erretiratuta nagoenetik, Bizikiren laguntzaz niretzat garrantzitsuak diren jarduerak egiten jarrai dezaket, hala nola Erandioko HHIIn dauden informatika-klaseetara joatea. Gainera, horri esker etxetik irteten, jendearekin egoten eta mugitu egiten naiz”

Santi Zárate

● Nik ere egiten dut posible aldaketa

“**Nik ere egiten du posible aldaketa**” proiektuaren bidez, adimen-
desgaitasuna duten pertsonak, senideek, profesionalek, boluntarioek
eta inguruko beste pertsona batzuek 2030 Agendarekin bat egin
dezaten laguntza eskaintzen diegu gizartean zeregin aktiboa
eta gizarte-ekarpeneko eragile bihurtzeko. Horrela, gizarte
bidezkoagoa eta solidarioagoa sortzen lagunduko dute.



GEURE MUNDUA
ERALDATZEKO 17 HELBURU

215 boluntariok parte hartu dute
aldaketaren alde egiten duten **21**
erakundetan.

Hondartzen garbiketa, basoberritzea,
elikagaiak biltzea, lasterketak eta
merkatu solidarioak, animaliak babesteko
elkarteak, berdintasun-ekintzak,
egoitzetan laguntzea...

Laguntza ematen diegu adimen-
desgaitasuna duten eta unean uneko
ekintzetatik haratago inplikatu nahi duten
eta beste erakunde batzuetan **boluntariotza**
egonkorra egitea erabaki duten pertsonari.

INGURUNEAREN SENTSIBILIZAZIOA

GAUDEko komunikazio-taldea
adimen-desgaitasuna duten 17
pertsonak osatzen dute. Pertsona
horiek prestakuntza-zentroetara,
ikastetxeetara eta unibertsitateera
joateaz arduratzen dira, admin-
desgaitasuna sensibilizatzeko eta
ezagutarazteko.

Hitzaldiak: 23



“Eraldatuz” talde-eragilearen
parte gara; komunitate-topaguneak
eta ekintzak sustatzen eta errazten
dituen “aldaketa sozialaren
aldekoko Getxoko pertsonen eta
erakundearen sarea”.

Sarea guk osatzen dugu
Getxo eta Leioako 9 erakunderekin.



PINTXO SOLIDARIOAK: "BABESTEN DUTEN ZAPOAREAK"



ELIKAGAIEN BANKUA



INGURUMENA



● Bizi-proiektuak Bizitza independentea

Adimen-desgaitasuna dutenen nahien, jomugen eta lehenetasunen arabera etxetik kanpo modu independentean bizi diren pertsoneri laguntzen diegu, bizitza independentea dakarten eguneroko erabakiak hartzen laguntzen diegu (aurrekontu pertsonala kudeatzea, erosketak, etxea garbitzea, eguneroko menua, eta abar).

“Oso pozik nago,
ikasten ari naiz eta
oso gustura nago”

Zaloa Gil



“Niretzat, bizitza
independentea
bakarrik bizitzen
ikastea da”

Maialen Arruti

5 BERDINTASUNAREKIN KONPROMISUA



Emakumeen taldea

Talde hori **12 emakumek** osatzen dute, eta berdintasun-teknikari batek eta GAUDEKO profesional batek dinamizatzen dute.

Berdintasun-plana

2023an zehar, elkartearen emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plana egin dugu.



Martxoak 8 eta azaroak 25

Komunitatean egindako ekintzetan parte hartu genuen martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, eta azaroaren 25ean, Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean.

Topaketa beste emakume-talde batzuekin

PAELLAK AHOTSEKIN

Eraldatuz Sarearen bidez, Getxoko beste 60 emakumerekin elkartzen gara urteko topaketa honetan.



6 2023AN...



Pregoilari izan ginen Leioako San Juan jaietan.



Donibane Z.O.ak "Ekainaren Astea" Aztertu Saria irabazi du honako proiektu honekin: *Sare berdeak*.



Frantziako Tourra Getxotik pasatu zenean behar zen boluntariatza kudeatu genuen.



Lehen urratsak euskaraz:

- Euskarazko Berbalagun taldea.
- Irakurketa errazeko kluba euskaraz.



"Pertsonen boterea" deituriko erabateko inklusioari buruzko 2. topaketan parte hartu genuen.



Erabateko Iraunkortasunaren Biltzarrean parte hartu genuen, *Eraldatuz Sarearekin*, eta iraunkortasun sozialaren jardunbide egokitzat jo zen.



Erabateko inklusioaren "etikaz" II. estatuko topaketan parte hartu genuen, eta Gaudere erakundearen eredu etikoa aurkeztu genuen.

7 GURE INPAKTUA

● Gure jardueraren inpaktu globala garapen jasangarrirako helburuen bidez (GJH)

2030 Agendak GJHak ditu nazioarteko eskalako adierazle gisa, eta, bertan, pertsona eta erakunde guztiok laguntza emateko aukera dugu. Hainbat arlo lantzen dituzten 17 helburu dira.

Elkartearen jardura globalak, batik bat, GJH hauei laguntzen die, 2023ko memoria honetan erakutsi diren jardura-eremuen bidez.



● Proiektuen inpaktu-ebaluazioa Zuazo Etxea

2022ko urrian, Zuazo Etxeko aldi baterako egonaldietarako etxebizitzaren inpaktua ebaluatzeko pilotaje bat hasi genuen, Carmen Gandarias Fundazioak finantzatuta eta Sinnple aholkularien laguntzarekin, gai hori babesten espezializatutako erakundea baita.

Prozesu horretan identifikatu dugu proiektu honek inpaktu berezia duela honako hauetan:

SENIDEEKIN:

- Ongizate emozional handiagoa
- Autoestimu handiagoa
- Familia, gizartea eta lana kontziliatzea sustatzea.
- Familia barruko harremanak hobetzea.
- Laguntza-sare egonkorra finkatzea

DATUAK

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **norberaren zaintzan** (norberarentzako aisialdia eta aisia, nagusiki).

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **atsedenean**.

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **gizartearen eta familiaren oreka** errazten du.

ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEKIN:

- Duintasun-zentzua hobetzea (nabaritutako errespetua eta bizitzeko hainbat alderdiren gaineko kontrolaren pertzepzioa).
- Familiarengandik aparte bizitzeko aukerarekiko konfiantza handitzea.

DATUAK

Desgaitasuna duten pertsonen % 100ek uste du **errespetuz tratatua izan dela** Zuazo Etxean egotean.

Desgaitasuna duten pertsonen % 80k uste du Zuazo Etxean egon bitartean **hainbat egoeratan eragiteko ahalmena dutela**.

ADMINISTRAZIOAREKIN:

- Kostua aurrezteko egoitza-egonaldi iraunkorren eskaera txikiagoagatik.

8 ALIANTZAK

140 erakunde kolaboratzaile baino gehiagoko sarea daukagu, eta horien artean honako hauek nabarmentzen ditugu:





Amaia Etorbidea, zk.2, 2G
48940 Leioa. Bizkaia
Tel.: 94 463 24 55
comunicacion@gaude.eus
www.gau.de.eus

